1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, a la mayor brevedad posible, comparta con los grupos municipales y con el resto de agentes el Plan de Accesibilidad de San Sebastián, y lo haga público, además de llevar a cabo las actuaciones necesarias para fomentar la participación de los agentes y de la ciudadanía.

2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari 2023-2027 agintaldirako ekintza-plana zehaztu eta horretarako kronograma bat eta aurrekontu bat aurkeztu dezala.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a definir el plan de acción para el periodo 2023-2027, y a presentar un cronograma y un presupuesto para el mismo.

Donostian, 2024ko otsailaren 15ean

San Sebastián, 15 de febrero de 2024

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego andreak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Carlos Garcia Hernandez jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Garbiñe Alkiza López de Samaniego, D.ª Arantza González García, D. Borja Corominas Fisas y D. Carlos García Hernández, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BIGARREN BOZKETAN BAZTERTUA, ALKATEAREN KALITATEZKO BOTOAREKIN.**
**ALDEKO BOTOAK: 13 – (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO EN SEGUNDA VOTACIÓN POR VOTO DE CALIDAD DEL ALCALDE.**

**VOTOS A FAVOR: 13 – (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

4. eta 7. kontrol-mozioak batera eztabaidatuko dira.

Se tratan conjuntamente las mociones de control n.º 4 y n.º 7.

**II.2.4. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Txalin-Igeldoko eraikuntzari buruzko epaiari buruzkoa.**

“Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, LURRALDEAREN GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEAk otsailaren 12an izan zuen bileran Hirigintza Plangintzako eta Etxebizitzako zinegotzi eskuorde Nekane Arzallusi Txalingo (Igeldo) eraikinaren gainean izandako epaiaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den hilean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiak baliogabetu egin zuen, zuzenbidearekin bat ez

**II.2.4. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la sentencia sobre la edificación en Txalin - Igeldo.**

“Arantza González García, Concejala del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL realizada a la concejala delegada de Planificación Urbanística y Vivienda, Sra. Arzallus, en la COMISIÓN DE DESARROLLO Y PLANIFICACIÓN DEL TERRITORIO del 12 de febrero, relativa a la sentencia sobre la edificación en Txalin-Igeldo.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de enero, el Juzgado Contencioso-Administrativo N.º 3 de Donostia-San Sebastián ha anulado la licencia municipal

zetorrela-eta, Udalak 2018-12-26an emandako obra-lizentzia, Martutenen zen Goiatz-Berri baserria Igeldoko Txalin lursailean berriz altxatzeko emandakoa.

Alkateak jendaurrean adierazi du Udalak epai horren aurkako errekurtsoa jarriko duela, eta zinegotzi eskuordeak jakinarazi zuen aztertzen ari zirela errekurtsoa jarri ala ez. Udal-lizentzia zuzenbidearen araberakoa ez izateagatik baliogabetu dela baieztatuz gero, eta sustatzaileak, azkenean, eraikitako eraikina bota egin beharko balu, bi milioi euro inguruko kostua ekar lezake (botatzearen eta kalte-ordainaren artean) Udalaren, hau da, donostiar guztien, diru-kutxarentzat.

Hala ere, 2022ko azaroan, salaketa bat aurkeztu zioten Udalari –eta handitu egin zuten hura 2023ko otsailaren 9an–, adierazten duena Udalak emandako lizentzia eta benetan egindako obra ez direla gauza bera, eta obraren sustatzaileak ez ziola horren berri eman Udalari. Udalak ez dio erantzun salaketa horri, ordea, nahiz eta hala egitea behartzen duen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen gaineko 39/2015 Legeak. Zinegotzi ordezkariak alegatu zuenez, salatzaileak eta auzitegietara jo zutenak pertsona berberak direnez, Udaleko zerbitzu juridikoek iritzi zioten dagoeneko erantzun ziela haiei Udalak, epaitegian jarritako errekurtsoaren bidez erantzun ziela.

Epaitegiak, ordea, errekurritutako gai bati besterik ez dio erantzun, baserria berriz altxatzeari, eta ez beste gai batzuei, adibidez: Udalaren lursail batetik ematea txaleterako behin-behineko bidea; eraikina jiratzea; guztira eraikitako bolumena; egindako igerilekua. Izan ere, Udalak oraindik ez du ebatzi Udalean

de obra de fecha 26-12-2018, por no ser ajustada a derecho, para la reconstrucción del caserío Goiatz-Berri ubicado en Martutene, en la parcela Txalin de Igeldo.

El Alcalde ha hecho público que el Ayuntamiento recurrirá la citada sentencia, y la concejala delegada informó de que están analizando si recurrir o no. En caso de confirmarse la anulación de la licencia municipal por no ser ajustada a derecho, y si la promotora tuviera que derribar finalmente el edificio construido, podría suponer un coste de derribo e indemnizaciones a las arcas municipales, es decir, a todos los y las donostiarras, de unos dos millones de euros.

No obstante, en noviembre de 2022 se presentó una denuncia en el Ayuntamiento, ampliada el 9 de febrero de 2023, que pone de manifiesto que la licencia concedida y la obra realmente ejecutada no es la misma, sin que el promotor de la obra haya comunicado en ningún momento esta circunstancia al Ayuntamiento. Esa denuncia no ha sido respondida por el Ayuntamiento, algo a lo que está obligado por Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. La concejala delegada alegó que, dado que los denunciantes son las mismas personas que recurrieron a los tribunales, los servicios jurídicos consideraron que el Ayuntamiento ha respondido ya a través de su respuesta al recurso en el juzgado.

Sin embargo, el juzgado tan sólo ha respondido a una de las cuestiones recurridas, la de la reconstrucción del caserío, pero no se ha manifestado sobre cuestiones como: el acceso provisional a la villa por un terreno municipal; el giro de la edificación; la volumetría total construída; la piscina

aurkeztutako salaketa eta hori egin arte ez dago epaitegian erantzuterik. Ez erantzuteak defentsa-gabezia eragiten die salatzaileei, eta legez kanpokotzat jotzen diren egintzei eustea babesten du. Beraz, Udalak lege aldetik duen betebeharra bete gabe jarraitzen badu, beste bide batzuetara jo beharko litzateke, aldez aurretik pentsatutako ez-betetze horren ondorioz izan litezkeen erantzukizun klase guztiak zehazteko.

construida, al no haber resuelto el Ayuntamiento resuelva la denuncia presentada en sede municipal, algo que sigue sin hacer. Esta falta de respuesta provoca indefensión en las personas denunciantes y ampara el mantenimiento de los actos que consideran ilegales, por lo que, en caso de que el Ayuntamiento siga sin cumplir con su obligación legal, habría que recurrir a otras vías que determinen las responsabilidades de todo tipo por este premeditado incumplimiento.

Udal gobernuak salaketari erantzuten ez badio –legeak erantzuteko betebeharra jarri arren–, dena ondo eginda dagoela onartzen ari da –emandako epaia gorabehera–, eta epaia irmo bihurtzen bada, botatzearen edo kalte-ordainen kostuak Udalaren diru-kutxaren kontura izan daitezke, donostiar guztien kontura, alegia.

Si el gobierno municipal no responde a la denuncia, algo que tiene la obligación legal de hacer, asume que todo está bien hecho, a pesar de la sentencia ya dictada, y si la sentencia se convierte en firme, cualquier coste de derribo o de indemnizaciones podrían recaer en las arcas municipales, es decir, todos los y las donostiarras.

Batzordean, zinegotzi eskuordeak azpimarratu zuen Eraikuntzako ordenantza osagarrien babesean zela lizentzia, paisaian hobeto integratzea aurreikusten dutela-eta haiek. Hala ere, onartu zuen 2021-05-29an aldatu zirela ordenantza horiek, lizentzia eman eta hiru urte geroago; eta, beraz, nekez aipatu daiteke lizentzia eman zenean ez zen araudirik.

En la comisión, la concejala delegada insistió en que la licencia estaba amparada en las Ordenanzas complementarias de edificación, ya que prevén la mejor integración en el paisaje. Sin embargo, también reconoció que esas ordenanzas fueron modificadas con fecha 29-05-2021, tres años después de la concesión de la licencia, por lo que difícilmente se puede apelar a una normativa que no existía en el momento de conceder la licencia.

Horiek horrela direla, hau da gure

Por todo ello, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio erantzuteko 2022ko azaroan jarri eta 2023ko otsailaren 9an handitu zuten salaketari, Txalinen (Igeldo) Martutenen zen Goiatz-Berri baserria berreraikitzearen gainekoari; eta, hartara, bete dezala Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al gobierno municipal a responder a la denuncia presentada en noviembre de 2022 y posteriormente ampliada el 9 de febrero de 2023, sobre la reconstrucción del caserío Goiatz-Berri (Martutene), en Txalin (Igeldo), para cumplir con su obligación legal -artículo

Erkidearen gaineko 39/2015 Legearen 21. artikuluak jartzen dion betebeharra.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio donostiarren interes orokorrak defendatu eta eskura duen guztia egin dezala eraikina botatzeko kostuak eta kalte-ordainak ordaindu beharrik ez izateko, baldin eta, azkenean, berresten bada 2018an Txalinen (Igeldo) Goiatz-Berri baserria berreraikitzeko emandako lizentzia zuzenbidearen aurkakoa dela.

Donostia, 2024ko otsailaren 16a

Arantza Gonzalez Garcia,
Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotzia".

**II.2.7. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, 2018ko abenduaren 26ko obra handiko lizentziari buruzkoa.**

"EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta 2018ko abenduaren 26ko ebazpen bidez emandako obra handiko lizentziari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Udalbatzan aztertzeko. 2024ko otsailaren 12ko Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean egindako interpelazioaren ondorioa da kontrol mozio hau.

JUSTIFIKAZIOA

Duela gutxi, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiaren urtarrilaren 23ko 12/2024 Epaiaren berri izan dugu. Epai horren bidez, baliogabetu egin zen Hirigintza Sostengagarriko aurreko zinegotzi ordezkariaren 2018ko

21 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al gobierno municipal a defender los intereses generales de los y las donostiarras y a hacer todo lo que está a su alcance para evitar tener que pagar costes de derribo e indemnizaciones si finalmente se confirma que la licencia de 2018 para la reconstrucción del caserío Goiatz-Berri (Martutene) en Txalin (Igeldo) es contraria a derecho.

Donostia, a 16 de febrero de 2024

Arantza González García
Concejala del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia".

**II.2.7. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la licencia de obra mayor de fecha 26 de diciembre de 2018.**

"Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, para su tratamiento en Pleno, sobre la Licencia de Obra Mayor concedida por resolución de fecha 26 de diciembre de 2018. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 12 de febrero de 2024.

JUSTIFICACIÓN

Recientemente hemos tenido conocimiento de la Sentencia 12/2024, de 23 de enero del corriente, del Juzgado de lo Contencioso Administrativo número 3 de Donostia por el que se anula la Licencia de Obra Mayor del

abenduaren 26ko obra handiko lizentzia.

anterior concejal delegado de Urbanismo Sostenible de fecha 26 de diciembre de 2018.

Horren harira, eta lurzoru urbanizaezinean obra handiko lizentzia zergatik eman zen jakiteko (auzitegiek baliogabetu egin dute), interpelazio bat aurkeztu genion Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariari.

Al hilo de ello, y al objeto de conocer los motivos por los que se concedió una Licencia de Obra Mayor en suelo no urbanizable que ha sido anulada por los tribunales, es por lo que presentamos una interpelación a la actual responsable del Departamento de Urbanismo Sostenible.

Akats baten ondorioz hirigintzako egungo ordezkaria izan zela esan bagenuen ere, abenduaren 26ko obra handiko lizentziaren orduko arduradunak haren legezkotasuna defendatu zuen.

A pesar de no haber sido la actual delegada de Urbanismo, como por error trascribíamos, la responsable de la citada Licencia de Obra Mayor de 26 de diciembre, sí defendió la legalidad de la misma.

Oraingo zinegotzi ordezkariak emandako erantzunean, behar adina argitu gabe geratu ziren zenbait gai, hala nola sarbidea, egindako eraikinak berreraiki beharreko jatorrizko eraikinarekin inolako loturarik ez izateko arrazoiak, eraikin berriaren kokapena aldatzea, hura biratzea eta abar.

En su contestación, quedaron sin aclarar suficientemente cuestiones como el camino de acceso, los motivos por los que la edificación ejecutada no guarda relación alguna con la edificación primigenia a reconstruir, la modificación del emplazamiento de la nueva edificación, rotando la misma...

Nabarmentzekoa da lurzoru urbanizaezina arautzen duten irizpideek lurzoru hori desnaturalizatzea saihestea dutela helburu, luxuzko etxeak edo txaletak eraikiz, halako moldez non bertan eraikiko diren eraikinak horien nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerei lotuta egon behar duten.

Interesa resaltar que los criterios reguladores en suelo no urbanizable tienden a evitar la desnaturalización del mismo mediante la construcción de villas de lujo o chalets, de forma que las edificaciones a construir en el mismo deben estar unidas a un uso agropecuario de los mismos.

Era berean, aurkeztutako salaketa-idazkiari Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritzak ez erantzuteko arrazoiei dagokienez, adierazi zigun ez erantzutea erabaki zela, eta, beraz, adierazi behar dugu ez zela bete Administrazioak herritarrei erantzuteko duen betebeharra.

Asimismo, con respecto a los motivos por los que no se había contestado, por parte del Departamento de Urbanismo Sostenible, al escrito de denuncia presentado, nos manifestó que se había decidido no contestar, incumpliendo con ello el deber que tiene la administración de responder a la ciudadanía.

Horregatik guztiagatik, hau sinatzen duen zinegotziak KONTROL MOZIO hau aurkeztu du:

Por todo ello, el concejal que suscribe presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiaren urtarrilaren 23ko 12/2024 epaiaren edukia ikusita, hura bete dezala, bertan ebatzitakoa betez.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, a la vista del contenido de la sentencia 12/2024, de 23 de enero, del Juzgado de lo Contencioso Administrativo número 3 de Donostia, acate la misma, dando cumplimiento a lo resuelto en ella.

2.- Donostiako Udalbatzak Hirigintza Sostengagarriko Zuzendaritzari eskatzen dio formalki erantzun diezaiola Igeldoko Txalin eremuan eraikitako etxearen obrei buruz aurkeztutako salaketa-idazkiari.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Departamento de Urbanismo Sostenible a contestar formalmente al escrito de denuncia presentado en relación a las obras de la edificación construida en Txalin de Igeldo.

3.- Horren ondorioz, Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio erabaki dezala aipatutako eraikinaren hirigintza-legezkotasuna berrezartzea.

3.- Del mismo modo. el Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que acuerde que se restituya la legalidad urbanística al referido emplazamiento.

4.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, indarrean dauden ordenantza osagarrien 36.1 artikuluan xedatutakoa betez, lurzoru urbanizaezinean baimentzen diren eraikinak eraikuntza tradizionalen tipologiara egokitzeko.

4.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a que, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 36.1 de las vigentes Ordenanzas Complementarias, las edificaciones que se autoricen en suelo no urbanizable se ajusten a la tipología de las construcciones tradicionales.

Donostia, 2024ko otsailaren 15a

Donostia, a 15 de febrero de 2024

Sinatua: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré,
Concejal del Grupo Municipal EH BILDU".

Eztabaida hasita, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Rikardo Burutaran Ferre jaunak, Borja Corominas Fisas jaunak eta Nekane Arzallus Iturriza andreak parte hartu dute puntu hauetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en estos puntos los/las señores/as D.ª Arantza González García, D. Rikardo Burutaran Ferré, D. Borja Corominas Fisas y D.ª Nekane Arzallus Iturriza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**4. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**4. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**BAZTERTUA.**<br>**GEHIENGOA.**<br>**ALDEKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**<br>**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**<br>**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**RECHAZADA.**<br>**MAYORÍA.**<br>**VOTOS A FAVOR: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**<br>**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**<br>**ABSTENCIONES: 3 – PP.** |

**4. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 4:**

| | |
|---|---|
| **BOZKETAREN EMAITZA:**<br>**BAZTERTUA.**<br>**GEHIENGOA.**<br>**ALDEKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**<br>**AURKAKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**<br>**ABSTENTZIOAK: 0.** | **RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**<br>**RECHAZADA.**<br>**MAYORÍA.**<br>**VOTOS A FAVOR: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**<br>**VOTOS EN CONTRA: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**<br>**ABSTENCIONES: 0.** |

**7. KONTROL MOZIOAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

7. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 3 – PP.

7. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 3 – PP.

7. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.
ABSTENCIONES: 0.

**7. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BIGARREN BOZKETAN BAZTERTUA, ALKATEAREN KALITATEZKO BOTOAREKIN.**
**ALDEKO BOTOAK: 13 – (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO EN SEGUNDA VOTACIÓN POR VOTO DE CALIDAD DEL ALCALDE.**

**VOTOS A FAVOR: 13 – (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Amara Berriko espazio publikoa aktibatu eta hobetzeko planean Armeria eta Olaeta plazetarako planteatutako proiektuari buruzkoa.**

“Elkarrekin Donostia Udaleko talde mistoko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Osoko Bilkuraren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, GUNE PUBLIKOAREN BATZORDEAK (OBRAK ETA ZERBITZUAK) hil honetan izandako bileran Amara Berriko Gune Publikoa Aktibatzeko eta Hobetzeko Plana ez gauzatzearen gainean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Amara Berriko Gune Publikoa Aktibatzeko eta Hobetzeko Plana Donostiako Udaleko Herritarren Partaidetza Zerbitzuak bultzatutako dokumentua da, eta auzoko erakunde eta kolektibo baten baino gehiagoren laguntza izan

**II.2.5. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al proyecto para las plazas de Armerías y Ferrerías planteado en el plan de activación y mejora del espacio público de Amara Berri.**

“Arantza González García, Concejala del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras la INTERPELACIÓN presentada en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS del presente mes, relativa a la falta de ejecución del Plan de Activación y Mejora del Espacio Público de Amara Berri.

JUSTIFICACIÓN

El PAM!, Plan de Activación y Mejora del Espacio Público de Amara Berri, es un documento impulsado por el servicio de Participación Ciudadana del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián cuya elaboración

zuen, bereziki Amara Berriko auzo elkartearena. Dokumentu horretan, Donostiako Amara Berri auzoko gune publikoak hobetzeko eta aktibatzeko proposamen mordo bat zehaztu zen. Babesik handiena izan zuzen proposamena Oleta eta Armaria plazak eraberritzeari buruzko proposamena izan zen.

contó con el apoyo y la colaboración de distintas entidades y colectivos del barrio, especialmente, de la Asociación Vecinal de Amara Berri. El citado documento definió una serie de propuestas de mejora y activación de los espacios públicos del barrio de Amara Berri de Donostia / San Sebastián. Así la propuesta más valorada era la relativa a la remodelación de las plazas Ferrerías y Armerías.

Ez dugu ahaztu behar kalitatezko gune publikoak izateak zer garrantzia duen; izan ere, Amara Berriko gune publikoa hobetzeko planak berak ere jasotzen duen bezala, "kalitatezko gune publikoak sortzea –pertsonen beharrei erantzun eta bizitza publikoa sustatuko duten gune publikoak–, hiriek beren biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko derrigor egin behar duten apustu bat da. Horretarako, hausnarketa-lan bat egin behar da, gune libreak eta haien artean den harremana berriz definitzeko edo indartzeko.

Debemos recordar la importancia de los espacios públicos de calidad que tal y como recoge el propio Plan de mejora del espacio público de Amara Berri “la creación de espacios públicos de calidad, que atiendan a las necesidades de las personas y potencien la vida pública, es una de las necesarias apuestas que deben hacer las ciudades para mejorar la calidad de vida de sus habitantes. Para ello, es necesario realizar un trabajo de reflexión que permita redefinir o potenciar los distintos espacios libres así como la relación que existe entre ellos”.

Hala ere, azterketa hori egin arren, bost urte baino gehiago pasa dira eta asko zehaztu gabe segitzen du planak. Zehazki, Armeria eta Oleta plazen proiektuaren oinarria zen eremua erdigune gisa sustatzea, auzoko azpizentroaren funtzioa eskuratu ahal izateko, identifikatutako nodoen arteko loturak sortuz.

Sin embargo, y a pesar de ese análisis han transcurrido más de cinco años y no se ha avanzado en la concreción del Plan. En concreto, el proyecto de las plazas de Armerías y Ferrerías se basaba en potenciar el ámbito como un espacio de centralidad, que permitiera adquirir la función de subcentro del barrio, generando conexiones entre los diferentes nodos identificados.

Amara Berriko auzo elkartea izan da proiektu hori gauzatzea eta landutako planean aurrera egin beharra adierazi duena. Hilabete honetako batzordeetan aurkeztutako interpelazioari erantzutekoan, Gobernuak adierazi zuen bigarren partaidetza-prozesu bat egin behar dutela proiektua zehazteko, eta prozesua egingo duen enpresa izatea nahi dutela ondorengo lanak ere egingo dituena, baina horixe bera dela

Es la asociación de vecinos y vecinas de Amara Berri quienes trasladan la importancia de materializar este proyecto y la necesidad de avanzar en el Plan trabajado. En las comisiones del presente mes, ante la interpelación presentada, el gobierno informó de que iba a proceder a realizar un segundo proceso participativo para definir el proyecto, y que quieren que la empresa que realice el

kontratua idaztea zailtzen ari dena.

Ez dugu ulertzen, orain dela bost urte partaidetza prozesu bat egin eta gero –Armeria eta Oleta plazetan egin behar ziren lanak planteatu zituen prozesua–, dirua gastatu behar izatea berriro orain gauza bera egiteko; izan ere, Udal gobernuak dagoeneko eginda izan behar baitzituen prozesu hartatik ateratako lanak.

Beldur gara Intxaurrondoko Sorleku Parkearen definizioarekin gertatu zen gauza bera ez ote den gertatuko berriz ere, eta bigarren parte-hartze prozesu horrek auzotarrek orain dela bost urte baino gehiago definitu eta baloratutako proiektua atzeratu eta, azkenean, tiraderaren baten ez ote den geratuko.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Udal Gobernuari eskatzen dio lehenbailehen gauzatzeko Armeria eta Oleta plazak eraberritzeko proiektua, bizilagunek Amara Berriko Gune Publikoa Aktibatzeko eta Hobetzeko Planean denen artean proposatu eta zehaztu zutena.

Donostia, 2024ko otsailaren 16a

Arantza Gonzalez Garcia,
Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotzia".

proceso sea la misma que lleve a cabo los trabajos posteriores, pero que esta circunstancia está dificultando la redacción del contrato.

No entendemos que, habiendo hecho un proceso participativo hace cinco años, que planteó las actuaciones para las plazas de Armerías y Ferrerías, ahora haya que volver a gastar dinero para hacer lo mismo, cuando lo que debería haber hecho ya el gobierno municipal, es ejecutar las actuaciones derivadas de ese proceso.

Nos tememos que, tal y como ha ocurrido con la definición del Parque Sorleku en Intxaurrondo, este segundo proceso participativo no haga más que dilatar en el tiempo el proyecto ya definido y valorado hace más de cinco años por el colectivo vecinal y termine por olvidarse de nuevo en un cajón.

Por este motivo, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián insta al gobierno municipal a ejecutar sin más dilación el proyecto de remodelación de las plazas de Armerías y Ferrerías propuesto y elaborado colectivamente con el vecindario en el marco del Plan de Activación y Mejora del Espacio Público de Amara Berri (PAM!).

Donostia, a 16 de febrero de 2024

Arantza González García
Concejala del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Vanessa Velez De Pablos andreak, Ane Oyarbide Ochoa andreak eta Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Arantza González García, D.ª Vanessa Vélez De Pablos, D.ª Ane Oyarbide Ochoa y D. Juan Karlos Izagirre Hortelano, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BIGARREN BOZKETAN BAZTERTUA, ALKATEAREN KALITATEZKO BOTOAREKIN.**
**ALDEKO BOTOAK: 13 – (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO EN SEGUNDA VOTACIÓN POR VOTO DE CALIDAD DEL ALCALDE.**

**VOTOS A FAVOR: 13 – (8) EH BILDU, (3) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren Egiako komisaldegi mistoari eta Udaltzaingoaren Ekialdeko Barrutiko komisariordetzari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Zerbitzu Orokorren Batzordean Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko Egiako komisaria eta Udaltzaingoaren Ekialdeko Barrutiko komisariaordetza dela eta egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

EAJren eta PSEren arteko Gobernu Itunean (2023-2027) bi komisaria berri eraikitzeko

**II.2.6. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre la comisaría mixta de la Ertzaintza y la Guardia Municipal en Egia y la subcomisaría de la Guardia Municipal del Distrito Este.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios Generales, sobre la comisaría mixta de la Ertzaintza y la Guardia Municipal en Egia y la subcomisaría de la Guardia Municipal del Distrito Este.

JUSTIFICACIÓN

En el Pacto de Gobierno del PNV y el PSE (2023-2027) se menciona el compromiso de

konpromisoa aipatzen da. Udaltzaingoaren komisariaordetza Ekialdeko Barrutian eta Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko komisaria mistoa Egian:

Gure auzoetako kaleetan izango den polizia-eredu komunitario, gertuko eta prebentibo baten aldeko apustua egiten dugu, delitu-portaeren aurrean jarduteko prozedura erabakigarri eta eraginkorrak izango dituena. Gainera, presentzia horrek isla espezifikoa izan behar du Ekialdeko Barrutian –Udaltzaingoaren azpikomisaria bat izango baita han–, eta baita Egian ere –Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko komisaria misto bat jarriko da-eta han–.

Batzordean horren gainean galdetu genion segurtasuneko zinegotziari, eta ez zen gauza izan, inguru bat Jolastokieta izan zitekeela aipatzeaz gain, zehazki zein tokitan jarriko diren, zer aurrekonturekin eraikiko diren edo zer agenterekin hornituko diren esateko.

Argitu genuen gauza bakarra izan zen 2024ko udal aurrekontuak ez duela diru sailik izango bi polizia-etxe horiek eraikitzeko. Beraz, gutxienez 2025era arte egon beharko dugu gobernu taldearen konpromisoetako bat betetzen hasteko.

Donostian den segurtasun eza gero eta arazo ohikoagoa da donostiarren eguneroko bizimoduan. EAJk eta PSEk Donostian bi komisaria eraikitzeko konpromisoa hartu dute Gobernu Itun batean, eta oraingoz ez dute konpromiso hori bete nahi.

Hori dela eta, hauxe da gure

los dos partidos para construir dos nuevas comisarías. Una subcomisaría de la Guardia Municipal en el Distrito Este y una Comisaría Mixta con la Etzaintza en Egia.

“Nuestra apuesta es por un modelo policial comunitario y presente en las calles de nuestros barrios, de proximidad y de carácter preventivo, con unos procedimientos de actuación resolutivos y eficaces ante los comportamientos delictivos. Además, esta presencia debe tener también un reflejo específico en el Distrito Este, donde se instalará una subcomisaría de la Guardia Municipal; y en Egia, donde se instalará una comisaría mixta de la Ertzaintza y la Guardia Municipal.”

Preguntado en comisión, el concejal de seguridad, más allá de mencionar el ámbito de Jolastokieta como un posible emplazamiento, fue incapaz de explicar dónde se van a instalar esas comisarías, con qué presupuesto se construirán o con qué agentes se dotarán.

Lo único que conseguimos aclarar fue que el presupuesto municipal del 2024 no contemplará ninguna partida para construir estas dos comisarías, así que como mínimo tendremos que esperar al 2025 para empezar a construir uno de los compromisos del equipo de gobierno.

La inseguridad en San Sebastián es un problema cada vez más presente en la vida cotidiana de los donostiarras. El PNV y el PSE se han comprometido en un Pacto de Gobierno a construir dos comisarías en San Sebastián, compromiso que, de momento, se niegan a cumplir.

Por este motivo, presentamos la siguiente

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio betetzeko donostiarrekin dituen konpromisoak, eta urte anitzeko aurrekontu-sail bat jartzeko bi komisaria horiek, Ekialdeko Barrutikoa eta Egiakoa, eraikitzeko.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak gobernu taldeari eskatzen dio bi leku konprometitzeko komisaria horiek ahalik eta azkarren eraikitzeko.

Donostian, 2024ko otsailaren 15ean

Borja Corominas Fisas,
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea".

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a cumplir con su compromisos con la ciudadanía donostiarra y dotar una partida presupuestaria plurianual para la construcción de estas dos comisarías en el Distrito Este y en Egia.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a comprometer dos espacios para la construcción de estas dos comisarías en el menor espacio de tiempo posible.

En San Sebastián, a 15 de febrero de 2024

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular".

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Marisol Garmendia Beloqui andreak, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Arantza González García, D.ª Marisol Garmendia Beloqui, D. Juan Karlos Izagirre Hortelano y D. Martin Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 9 – (7) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 1 - EH BILDU, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 16 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 9 – (7) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 1 - EH BILDU, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Urgull mendiko hegalean dagoen behin behineko kokaguneari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Urgull mendian behin-behineko kokaleku bat izatea dela eta aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gune Publikoen Batzordeak orain hurrena izan zuen bileran bizilagun batzuen kezka adierazi genuen, Urgull mendian legez kanpoko "kokaleku" edo kanpamendu bat zela ohartarazi ziguten-eta.

Garai batetik hona legez kanpoko kokaleku batzuk agertzen ari dira Donostian, eta, zoritxarrez, pertsona asko egoera txarrean bizitzen ari da horietan. Erriberetan, Urgullen, Morlansen, Melodyn, Anoetan, Altzan, Herreran eta beste toki askotan babesten dira pertsona asko, kalteberatasun handian.

Kokaleku horiek, han bizi direnak marjinaltasunera kondenatzeaz gain, segurtasun falta irudipen handia ematen diete herritarrei.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu

**II.2.8. Moción de control, presentada por el Grupo PP, sobre “asentamiento provisional” en la ladera del monte Urgull.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, como consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de  Espacio Público, Obras y Servicios , sobre “asentamiento provisional” en la ladera del monte Urgull.

JUSTIFICACIÓN

En la última Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos trasladamos la preocupación de varios vecinos que nos alertaron de la presencia de un “asentamiento”, o campamento ilegal, en la ladera del monte Urgull.

De un tiempo a esta parte están apareciendo en Donostia asentamientos ilegales en los que, desgraciadamente, malviven muchas personas. En Riberas, Urgull, Morlans, Melody, Anoeta, Altza, Herrera, y tantos otros lugares en los que se cobijan personas en estado de enorme vulnerabilidad.

Estos asentamientos, además de condenar a la marginalidad a los que los habitan en ellos, generan una enorme sensación de inseguridad entre la ciudadanía.

Por este motivo, presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián

taldeari eskatzen dio husteko Donostiako udalerrian legez kanpo diren kokaleku guztiak.

2. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu taldeari eskatzen dio kokaleku horiek osatzen dituzten elementu guztiak bildu eta suntsitzeko, eta lehen ziren bezala uzteko kokaleku horiek ziren inguruak berriz.

3. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu taldeari eskatzen dio bizitoki-irtenbide bat eta prestakuntza-pasabideak eskaintzeko, erabateko laneratzea eta gizarteratzea bermatzeko, gizarte-laneko programetan parte hartzearen truke.

Donostian, 2024ko otsailaren 15ean

Borja Corominas Fisas,
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea"

insta al equipo de gobierno a a desalojar todos los asentamientos ilegales que existen en el término municipal de Donostia-San Sebastián.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a recoger y destruir todos los elementos que constituyen esos asentamientos y devolver a su estado original los entornos en los que se han establecido.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al equipo de gobierno a ofrecer una solución habitacional y pasarelas de formación para garantizar la integración laboral y social plena a cambio de la participación en programas de trabajo social.

En San Sebastián, a 15 de febrero de 2024

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular"

Eztabaida hasita, Borja Corominas Fisas jaunak, Arantza Gonzalez Garcia andreak, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak, Martin Ibabe Eceiza jaunak eta Marisol Garmendia Beloqui andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D. Borja Corominas Fisas, D.ª Arantza González García, D. Juan Karlos Izagirre Hortelano, D. Martin Ibabe Eceiza y D.ª Marisol Garmendia Beloqui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 22 – (7) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 1 – EAJ/PNV, PLENO ARETOAN EZ EGOTEAGATIK.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 22 – (7) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 1 – EAJ/PNV, POR HABERSE AUSENTADO DE LA SALA.**

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, udal-eraikinetan eguzki-plakak instalatzea dela eta.**

“Itziar Iturri Arrazolak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, udal-eraikinetan eguzki-plakak instalatzea dela eta. Mozioa 2024ko otsailaren 12an Lurralde Garapen eta Plangintza Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak 2030. urterako EAEko administrazio publiko bakoitza behartzen du energia-kontsumoa % 35 murriztera eraikin guztietan, eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazio nahikoak izatera aipatutako administrazioaren kontsumoaren % 32 hornitzeko, aprobetxamendu termikoko zein elektrizitatea sortzeko sistemak barne.

Donostiako Tokiko Agenda 21en gidalerroen artean, udal-bulegoetan energia berriztagarrien erabilera sartzen duten inbertsioak sustatzea dago. Birgaitzen ari diren eraikin edo eraikin berrien estalkiak aprobetxatzea proposatzen da.

